



BIDEGI SAN INGENIARI INFORMATIKOA HAUTATZEKO PROZESUA

LANPOSTUAREN DESKRIBAPEN NAGUSIA.

Eginkizunaren azalpena:

Ustiapen Sailaren barnean, honako hauetan lagunduko du: IT sistemen kudeaketa, mantentze eta bilakaeran; software garapen berrien zehaztapen, ezarpen eta probetan, bai eta datuen ustiapenean eta tratamenduan ere, autobideen azpiegituraren sistema informatikoak etenik gabe hobetzen joan daitezzen.

Betekizun nagusiak:

- Bidegiren IT sistemen mantentze eta bilakaerarako beharreko jarduerak egitea.
- Garapen berrien zehaztapen funtzionalean laguntzea, IT sistemei begira erabiltzaileek dituzten beharrak jasoaz, hirugarrenen bidez garapenak edo ezarpenak koordinatuz eta /edo garapen propioak eginez.
- Software edo hardware aplikazio berrien helburuak betetzeko proba prozedurak gauzatzea eta soluzio tekniko egokiak onartzea. Egindako programen kalitate kontrola bermatzea.
- Datuak ustiatzen eta tratatzen laguntzea.
- Ustiapen plana gainbegiratzen eta garatzen laguntzea eta Operadoreak kudeatutako autobideen azpiegituraren sistema informatikoen etengabeko hobekuntza planean aktiboki parte hartzea.
- Bidegiren mantentze mikro-informatikoaren koordinazioa.

Eskatutako gaitasun nagusiak:

- Pertsona barnekoa: autokontrola, konfiantza, segurtasuna, kontrakotasunei aurre egitea.
- Pertsona artekoa: komunikatzeko, harremanak izateko, taldean lan egiteko gaitasuna.
- Ingurua: ikuspegia eta aurrea hartzea, bezeroarekiko orientazioa, irekiera, enpresarekin identifikatzea eta konprometitzea.
- Zereginen garapena: ekimena, emaitzetara bideratzea, analisi gaitasuna, gaitasun erabakitzailea, erabakiak hartzeko gaitasuna.
- Kudeaketa: lidergoa, planifikazioa eta antolakuntza.

Gaitasun tekniko zehatzak:

- Javan oinarrituta atariak garatzen ezagutza sakona, Internet teknologien inpaktu handiarekin, bai eta software arkitekturen eskakizunak hartzen eta modelatzen ere.
- Datuak eta metadatuak aurkezteko eta tratatzeko teknologiak: HTML, XML, XSL, CSS, Javascript/AJAX, eta abar, ezagutzea.
- Datu base erlazionalak ongi ezagutzea, bereziki Oracle.
- Webservices, SOAP teknologiak edo antzekoak ezagutzea.
- IT azpiegituren komunikazio sareak eta mantentzea ezagutzea.
- Informazioaren segurtasun sistemak ezagutzea. ISO 27.001 eta antzekoak.



BALDINTZAK.

- a) Titulazioa: Informatika Ingeniaritzako Gradua edo antzeko unibertsitate titulu ofiziala (Telekomunikazioak, Industria Ingeniaritza, ...) edo homologagarria (esate baterako, lehengo Lizentziatura edo Informatika Ingeniaritza goi mailako unibertsitate tituluak) izatea, edo hura lortzeko eskubideak ordainduak izatea.
- b) IT azpiegiturak ustiatzen (ekipoak eta haiekin loturiko softwarea mantentzea eta datuen ustiapena) 5 urteko lan esperientzia izatea.
- c) Euskara: Euskarako C1 mailaren edo homologagarriaren ziurtagiri ofiziala izatea edo, hala badagokio, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko ziurtagiria izatea.
- d) Ingelesa: B2 mailako ezagutza, hautapen prozesuan egiaztatu edo ebaluatu beharko dena.

ESKAERAK AURKEZTEA.

www.bidegi.eus eskuragai dagoen eskaera orri ofizialean aurkeztuko dira eskaerak, orri hori behar bezala beteta, honako hauen arabera:

- a) Curriculum Vitae eguneratua aurkeztuko da aipaturiko eskaera orriarekin batera.
- b) Aurkezteko lekua edo bidea:
 - Posta elektronikoaren bidez seleccion@oteic.com helbidera, gaian "PROCESO SELECCIÓN BIDEGI SA 2019 HAUTAPEN PROZESUA" adierazita.
 - Aurrez aurre honako helbide honetan: OTEIC Taldea, Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. Solairua – 20018 Donostia. Aurrez aurre aurkezteko ordutegia 9:00etatik 18:00ak arte izango da, astelehenetik ostiralera (martxoaren 18an izan ezik, egun horretan bulegoa itxita egongo baita).
 - Posta bulegoetan, bidalketa ziurtatuaren bidez, aurreko helbidera zuzenduta. Gutun azal irekian aurkeztuko da eskaria, Postako langileek data eta zigorria jarri ahal izateko, eskaera orriak aurkezteko epearen barnean. Horrela egiten bada soilik ulertuko da Posta bulegora eraman den egunean sartu dela eskaera. -
- c) Eskaerak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, deialdi hau prentsan argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, eta zehatz esateko, 2019ko martxoaren 4tik 2019ko martxoaren 18 arte, biak barne.

Hautapen prozesuan epe jakin bat zabalduko da hartan jarraitzen duten hautagaiek eskaera orrian adierazitako guztia egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez dezaten.



BESTE INFORMAZIOA.

Lanbide eta antolakuntza proiektu sendoan sartzeko aukera ekaintzen da, familia eta lan bizitza bateratzeko neurri ugari dituen, eta kontratazio mugagabea egiteko aukerarekin.

Aurretik aukeratutako hautagaiei erantzungo zaie soilik.

Emandako datuak 2016/678 (DBAOren (EB) arabera tratatuko dira.